

Billakari aundi baten eriotz-eun urtea

James Cook

Ontzi-buru izatera nola eldu zan

*Billakari ospetsua, alogereko langille baten semea izan zan,
zoi edo adobazko etxean jaioa*

Trevor BLORE, Ontzi-buruak

ESPAÑIAR eta portugaldar itxas-gizonak egiñiko gauza arrigarrietatik gizaldi bi geroago, James Cook kapitainak, arein leikide izan nai izan eban arein antzeko egitsari aundi ta dizditsuak egiñez.

Aren izena orrela, letra ezinezabatu ta kenduz idatzita geratu da munduko ibiltaun, billakari (exploradore) ta adur-zalerik entzutetsuenen artean; bear ba'da —«Terra Australis Incognita»ren billa— ego-aldeko borobil-erdia osorik zearkatu ebalako, iru joan-etorri siñistu-eziñekotan, mapa ta itxaskuntza kartetan Australia, Zelanda Barri ta Egoaldeko itxasoetako beste ugartekoak kontaezin ala sarturik..., edo-ta bear ba'da, bere gizaseme errime ta ameslariaren paperari dedu emonik, Hawai'ko erritarren eskuetan eriotzea aurkitu ebalako.

Ori jazo zanetik berreun urte dira orain, London'go Gizadi-Museuak gogora dakarz aren egite arrigarriak, ari eskiñitako azillaren 18'rarte zabalik egon dan Era-kusketa baten bitartez. Beste alde-tik, Yorkshire, aren jaioterria ikertzen dabenak, jarraitu al izango dabez liburuxka ta mapa jakin-garrien bidez, aren umetako ta gaztetako bizitz-urrats guztiak. Urrengo idatzi onek esango dausku Cook zelan egin zan itxasgizon trebetua.

* * * * *

«James, alogereko langille baten semea...»; Marton (Yorkshire) erriko elizako bateatuen liburuan 1728'garren urteko azillaren 3'an agertzen dan idazpuru auxe da munduko itxasgizon billakari eta urelesti hidrografo zale ospetsuen

arteko bat: Gudarako Errege-Ontzidiko James Cook Kapitaina, lenengo aldiz aipatzen dauana.

James, James eta Graze Cook sendiko zazpi semeetatik bigarrena, 1728'ko urtarraren 27'an jaio zan, logela biko landetze txiki batean, Yorkshire'n lasto-buztinezko etxe batean.

Itxas-ibiltzauna Yorkshire'n jaio zan arren, bere aita eskozitarra, bae Eskozia'koa zala uste da, baiña aren sendiaz daukagun lenengo barria, zeatza beintzat, Marton'en jarten daukue, Omsby'ko parrokiari, John seme nagusia emen jaio ta bateatua izan bail zan 1727'goko, urtarrillaren 10'an.

Nastea eta illuntasuna

Cook'tarrak laster ur-ur egoan Marton errira aldatu ziran; izenen antz eta iruditua nastea sortu izan dau edestilari batzuen artean. Ba dagoz, egia esan, beste naste ta illuntasun batzuk be James Cook'en aurtzaroaren inguruan, aren bizi-zidazle batzuen artean eztabaidak sortu dabezanak; baiña indar aundiena dabenen artean bat George Young irakaslea dala dirudi, Whithy'ko apaiz zaar bat, Yorkshire'ko portua, noski, Cook lenengo aldiz itxasoratu zan lekukoa.

Lenengoz Whithy'ra 1805'an joan zan Young jaunak, itxaslar aundia zorigaitzoz ilda 25 urte ge-

roago noski, «Cook'en bizitza» argitaratu eban 1836'an, eta beran osoatzeko zeatzasun eta berrin geienak aren sendikoengandik, adiskideengandik eta baita Cook Kapitainaren ikastetxeko oraindik bizi ziran aren bi edo iru lagunen gandik be, jaso zituela balazta ta itz-emoten dauko.

Cook'tarrak Marton'en bizi izan ziran urte batzuetan, eta bertan ikasi eban James'ek irakurten erriko irakasle Mary Walker'ekin.

Langille-zain izatera etzen da bere aita

1736'an, Cook'en aita antza denez mailla bat goratu zan bere alger-lanean. Alako Skottove jaunak maiorala edo langille-zain izatera jaso eban, eta orduan Aity Holme Farm'era, Aytan ondora aldatu zan bere familiagaz. Zortzi urtekoa zala, James gaztetxo eskolara asi zan Pullen erriaren baitan zaindaripean; eta emendee, dihoenez, erakutsi eban bere aritmetika ikasteke grina bizi-bizia, eta egokitasun berezia, gerora urteak joan eta urteak etorri, itxaskuntzan eta ur-elestian izango eban trebetasunaren eustazpi ta gindarriak, ain zuzen be.

Aren eskola lagunak, Young maisuaci euren zartzarotan arretaz mintzatu yakenak, dihoenez, James gaztea senda ta azkarra zala autortu eutsuen. Egite, edo joko

arteko bat: Gudarako Errege-Ontzidiko James Cook Kapitaina, lenengo aldiz aipatzen dauana.

James, James eta Graze Cook sendiko zazpi semeetatik bigarrena, 1728'ko urtarrilaren 27'an jaio zan, logela biko landetze txiki batean, Yorkshire'n lasto-buztinezko etxe batean.

Itxas-ibiltzauna Yorkshire'n jaio zan arren, bere aita eskozitarra, bae Eskozia'koa zala uste da, baiña aren sendiaz daukagun lenengo barria, zeatza beintzat, Marton'en jarten daukue, Grimsby'ko parrokiari, John seme nagusia emen jaio ta bateatua izan bait zan 1727'gnko, urtarrilaren 10'an.

Nastea eta illuntasuna

Cook'tarrak laster ur-ur egoan Marton errica aldatu ziran; izenen antz eta iruditua nastea sortu izan dau edestilari batzuen artean. Ba dagoz, egia esan, beste naste ta illuntasun batzuk be James Cook'en aurtzaroaren inguruan, aren bizitzidazle batzuen artean eztabaidak sortu dabezanak; baiña indar aundiena dabenen artean bat George Young irakaslea dala dirudi. Whithy'ko apaiz zargi bat, Yorkshire'ko portua, noski, Cook lenengo aldiz itxasoratu zan lekukoa.

Lenengoz Whithy'ra 1805'an joan zan Young jaunak, itxastar aundia zorigaitzoz ilda 25 urte ge-

roago noski, «Cook'en bizitza» argitaratu eban 1836'an, eta berea ospatzeko zeaztasun eta baxerri geienak aren sendikoengandik, adiskideengandik eta baita Cook Kapitainaren ikastetzeko oraindik bizi ziran aren bi edo iru lagunengandik be, jaso zituela balaztu ta itz-emoten dauaku.

Cook'tarrak Marton'en bizitza ziran urte batzuetan, eta bertan ikasi eban James'ek irakurten erriko irakasle Mary Walker'ekin.

Langille-zain izatera etzuten da bere aita

1736'an, Cook'en aita antza denez mailla bat goratu zan bere alger-lanean. Alako Skotteys jaunak maicrala edo langille-zain izatera jaso eban, eta orduan Ayr Holme Farm'era, Ayrton ondore aldatu zan bere familagaz. Zortzi urtekoa zala, James gaztetxo eskolara asi zan Pullen eritxon baten zaindaripean; eta ementxe, dironez, erakutsi eban bere aritmetika ikasteko grina bizi-bizia, eta egokitutasun berezia, gerora urteak joan eta urteak etorri, itxaskuntzan eta ur elestian izango eban trebetasunaren eustazpi ta oinarriak, ain zuzen be.

Aren eskola lagunak, Young maisuari euren zartzarroan aretze mintzatu yakenak, dironez, James gaztea sendu ta azkarra zala autortu eutsen. Egite, edo joku

bat, asmatu ta antolatu nai izaten eban, eta aurrena izan.

Eskolatik urten zanean, James'ek itxuraz bere aitagaz lan egin eban landetxean amazazpi urterarte; Young jaunak jakin al izan ebanez, amazazpi urteko zala, Staithes erritxora eroan eban, Whithy'tik amar millara, eta emen lan egin eban Sanderson eritxon ugazaba batek koloni-janariak eta purtzilleriak saltzen zituan denda batean; lan-itunez, alan be, ez egoan ari lotuta.

James Cook orduantxe sartu zan artu-emonean lenengoz itxasoarekin eta itxasgizonakin. Edes-tilari batzuk ipuin au asmatu eban, ots, Cook gazteak txelin bat ostu ebala bere ugazabaren dirukutxatik eta anka egin ebala aieneko edo itxasmutil, «txo» lez.

Kondaira zeaztua

Young jaunak, alan be, garai alan Cook ezagutu eban Stathes'eko pertsona batzuk esan eutsoenez, ipuin onen egia berezitu ta mugatu eban.

Irudi danez, Cook gazteak Egoaldeko Itxasoetako txelin bat ikusi eban, 1727'an ain zuzen be ikurraztu ta egiña, ugazabaren kutxan, eta gazteak aldatu egin eban au bere beste baten ordez. Sanderson jaunak, diru bakan eta bitxi au ikusi ebanak, zer jazo zan aregaz itandu eban, baiña azkenez

emon eutsan adierazpenak pozik itxi eban.

Geroago, Sanderson jaunak, bere ogipeko ta otseñak itxasoan eutsan griña ta zaletasun sakonaz jabeturik, eta mutil gaztearen aitarren baimenaz, Whithy'ra eroan eban James, eta emen John Walker'ri aurkeztu eutsan, ikatz-erokarri ekarrian ebillen konpañi bateko lagunkideari. Walker jaunak iru urterako artu eban ikas-barri lez, egun areitako 7 edo 9 urteko epea ikasten egin oi ebezanen ordez.

Cook orduantxe egin zan lenengoz itxasora «Freelove» ontzian, 450 toneladakoan (eta ez «Truelove»n, iñoiz esan izan dan legez), ikatz-industrian itundua Ingalaterra'ko sortaldeko itxas-ertzetan. Bere joan-etorrien bitartetan, neguan batez be, bere ugazabaren etxean egon zan eta itxas-gaiak ikasi ebazan, Walker jaunaren ardura zoli ta ongurapean ikasi be; Walker au Cook'en adiskide kutuna izango zan gero bere bizitzaldi guztian.

«Freelove»n egin zituan ostera batzuen ondoren, James Cook, laguntzaille lez, «Three Brothers» eritxon itxas-ontzia gertatu ta trenatzera bialdu eban. Ontzi onetan ibilli zan, ikatz-industrian aratona lan-egin ebanean, gudarozterako gudariak eroaten eta Noruega'rekin sal-erosketan jardun ebanekeoan nunbait.

Beste barku batzuetan be ostera



Whitby'ko kausik irian zan lenengo James Cook.

batzuk egun onen, James Cook Walker'en beste barka bateko, «Friendship» ontziko lenengo nausi inentatua izan zan; au, jakitza, orduko gazte batentzat, bat-bateko igotza izan zanik ezin ukatu. John Walker'ek eta onen seme batek gutxi begiko ta maite ehen, bere jakite ta trebetasunagatik.

Lenengo sinikada aundia

Cook iru arretan ibilli zan lenengo buru edo ofizial bez «Friendship» ontzian, eta kapitain kargurako izentatzeko egun.

Baile orduan, 1755'an, gudari Frantzia ta Ingalaterra'ekin, Cook'ek orabegi aundi bat aritu ehan bere kondairazko karrera. Wal-

ker sendiarekin zalkatu ta onen amasa izanik, «Friendship»eko kargua itxi Tamesis'en, eta London'go gudari-bateko eixe baton bitartez, berak baita aurkentu zan itxas-zerbitzurako «Eagle» itxas-ontzian; guda-ontzi onek 60 kadiak erotiazan, eta Joseph Hammer'en agindupean 400 itxas-mutil eta 56 itxas-erdi-zeko gudari eukazan.

Barka ontako gudari-mutilen izen-lerroan, London'go Artzibulantolan gordeten danean, urtego oarpena agertzen da: «James Cook, A3 mailakoa, sartu zan egun 1755'ko bagillaren 17, lenengo agerpena («Eagle» ontzian, Portsmouth'en, 1755'ko bagillaren 25'an).

Ogibidezko itxastarra izanik 8 edo 9 urteko esperientziz, izakera onekoa ta agintze-doaiz jantzia «Friendship» ontzian lenengo ofizial lez artua, ez da arritzekoa, egun areitan jentez urri ebillen Erregeran Guda-Ontzidian egun batetik bestera goratua izatea. Bagillaren 24'an, «Eagle»n izena emon ebanetik illebete geroago, bigarren maisu edo kontramaisu maillan aurkitzen zan, eta mailla onetan iraun eban «Eagle» itxi arte, urte bi geroago.

Suzko bateoa

Urte bete ta geiagoan, «Eagle» Mantxa'ko Surguan egon zan lanean frantsesen aurka, denporarik geienean Hugh Palliser kapitainaren menpean. Baiña 1757'ko maiatzaren azkenengoetararte James Cook'ek ez eban itxas-ontzi arteko burruka baten bene-benetako esperientzirik.

«Eagle»k eta «Meadway»k ikuskatu eben frantses ontzi, «Duc de Aquitaine», 50 kañoikoa, India'rekin sal-erosketan ebillena, Mantxa'ko Surguan, itxaso asarratuan; eta aurrean artu eben, erasoka.

Palliser kapitainak laster meaztu ta itzarri eban ontzi-gaiña burrukarako. «Meadway»k, ontzi aundiagoa zalako, erasoten asi zan; baiña frantses ontzira urrerritzen asi zanean, gitxitu egin bear

izan eban bere abiadea burrukarako obeto gertatzearren, eta «Eagle» joan zan aurkakoari arpe emoten.

Au onela zeaztu zan «Eagle»k eroian egunkarian: «Erasoten jandun genduan eta zupin-aldi eder bat bialdu gendun, eta besteak erantzun euskun; iru ordu laurdenean orrelaxe, jo ta jo, iraun genduan alkarrri erasoka, zuzenean tiroka asi artean.

Orduan (etsaiaren ontzia) ondatu zan, gelditzen ziranak atxillo arturik eta geure mastak eta treneriak antolatu ta sendo-azorik 50 gizon il ginduzan eta 30 zauritu. Guri 10 il euskuezan eta larrogei zauritu».

«Eagle»k kalte aundiak izan zituan; eta James Cook kontramaisuentzat auxe izan zan suzko bateoa, bene-benetakoa izan be.

Kippis idazleak, orduko edelariak, idatzi eban: Hugh Palliser'ek esan eutsonez, onek eskutitz bat jaso ebala Yorkshire'tik Parlamentuko bategandik, Whithy'ko Walker jaunaren eskariz idatzitakoa, Cook'entzat gorago jasotea eskaturik.

Garai atan oitura zanez, ontzi baten teniente lez zerbitzeko bear ziranak, sei urteko zerbitzua gaitxienez, guda-ontzi baten egin euki bear ebela. Orrela, ba, Palliser'ek erantzun eban James Cook «denpora gitxi egon zala zerbitzuan, ofizial maillara jasoteko.

baiña Salgai-ontzidiko (Marina Merkante)'ko kapitain agiria emon leikeola, eta orren bitartez beste edozein kargurako be gai egiten zala, edozein mailatan be duinkiro beteko ebala bere arazoa ta».

Bere azkenengo ikustaldia

1757'ko bagillaren 27'an, James Cook'ek bere azkenengo ikustaldia egin eban «Eagle» ontzian kontramaisu lez, eta illebete gerroago agertzen kapitain lez «Solebay» eritxon ontzian.

Urte biko itxas-zerbitzu ostean, lenengo maillako «txo» izatetik ofizial izatera eldu zan. Kondairalari batzuk diñoe, «Mercury» ontzian izan zala Cook kapitain lenengoz; baiña emen, itxura danez, txandrio edo naste bat dago, gerroagoko ikerketa batzuk beintzat

ori diñoskue: beste James Cook bat izan ei zan, Gudarako Errege Ontzidian zerbidu ebana, gitxi gorra-bera kargu bardiña euki ebana.

Cook etzan luzaro egon «Solebay» itxasontzian, eta lotazillaren 17'an John Nichols'ek ordeaztu eban kapitain lez. James Cook kapitainak lurrean egon bear izan eban aste batzuetan, baiña «Pembroke», ontzi barri bateko izenzerrendan ikusi daiteke 1757'ko urtillaren 18'an izentatua izan zala, urtillaren 27'an bere kargua artuaren aginpidea arturik, 29 urte beteten zituan egun-egunean.

Urrengo urtearen asieran, Cook'ek «Pembroke» ontzian itxas-egin eban ontzidiko legez, frantsezen aurka Kanada'n burrukan ebillen Boscaven almirantearen agindupean.

AITA ONAINDIA'k euskeratua



Itxoizu pixkat

Biaramonian lana uts-egiteko baimena eskatu zion langilleak nagusiarri. Aitzakia: osaba il zitziola-ta, bere illetara joan nai lukela.

Urrengo eguncan —asteazkena izaki— nagusia futbol-zelaira joan zan. Ta orra nun ikusten duen bere langillea ere, txokor eder bat ortzetan, partidoa noiz asiko zai.

— Eskatu zenidan baimena ez al zan, ba, osabaren illetara joateko?

— Itxoizu pixkat —erantzun zion besteak—, arbitroa nere osaba da-ta.